

SANTA AGEDA

Santa Ageda bezpera dogu
Euskal Herriko eguna
Etxe guztiak kantuz pozteko
Aukeratua doguna.
Etxeko andre bihotz zabala
Toki honeko alaba
Eskean gatoz ondo jakinik
Esku zabala zerala.



Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz
aterik ate ohitura zaharrak
aurten berritzeko asmoz
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oiñetakoz
baiñan eztarriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gogoz

Foru euskaldun herri maitia
ederra da benetan,
seme alaba jator zintzoak
kale bazter nahiz etxean.
emongo bazu, emoixu orain
kantari gauden artean.
Hurrengo ere etorko gara
Etxe hontara bisitan.

